

# Zurekin **GORLIZ** gara

**ehbildu**

**JOSE ANTONIO  
MARTÍNEZ**

Historia eta Politiketan lizentziatua. Historia garaikidean masterra.  
Herri mugimenduen parte.  
Licenciado en Historia y Políticas. Máster en Historia Contemporánea.  
Participa en movimientos populares.

**INICIATIVA | SOLUCIONES**



**Bea Ilardia**

Foru hauteskudeetako  
zerrendaburua  
Candidata a Diputación General  
de Bizkaia

«Bizkaia hobetu  
dezakegu  
herrialdeak dituen  
baliabideekin»

«Aprovechemos  
los recursos para  
mejorar Bizkaia»

**T**ras cuatro años de Concejal en Gorliz, Jose Antonio Martínez, es de nuevo candidato. Nacido en Orduña en 1954 es licenciado en Historia y en Ciencias Políticas y ha realizado un Máster en Historia Contemporánea. En los años 70 participó en los movimientos vecinales y ecologistas de Bilbao y desde hace casi treinta años reside en este Municipio, en el que ha participado en varias iniciativas populares. Conoce la Administración Local porque ha trabajado muchos años en ella, aunque ahora es un pensionista que quiere ofrecer su dedicación al Municipio.

### **Ze arrazoik bultzatu zaitu hauteskunde hauetara aurkeztera?**

Jendearen bizimodua hobetzea helburu duten mugimenduetan egon naiz betidanik militatzen (ekologismoa, sindikalismoa...). Gorlizen zinegotzi moduan lau urte pasa ondoren, nire bizitzan jaso dudana esperientzia herri honek dauzkan arazoak gainditzeko baliagarria izan daitekeela uste dut.

### **Nola definituko zenuke Gorlizko gaur egungo egoera?**

Gaur egun 5.800 biztanle dituen herria da, 4.800 etxebizitzekin, bertan enpresa oso gutxi daude eta jende asko erakartzen duen hondartza bat dauka. Honek zerbitzuen eskaera handia sortzen du, bai garbiketan, lorezaintzan, kale argiztapenean, kulturen, hezkuntzan etabar eta udalak eskaera hauek asetzeko baliabide oso urriak dauzka, batez ere Ekintza Ekonomikoen gaineko Zergagatik oso diru sarrera gutxi jasotzen dituelako. Baina horrez gain, jendearen kalitatea hartu behar da kontuan, bere parte hartzeko

ahalmena eta herrian dauden elkarte kopuru handia. Hau da Gorlizek daukan baliorik handien

### **Ze behar nagusi ikusten duzu herrian?**

Azken hogeita hamar urteetan Gorlizek bere biztanleria bikoiztu du, horrekin batera zerbitzuen eskaera asko handituz. Horregatik udal ekipamenduen hobekuntza plan baten beharra dago, hauek gaur egun dauden eta etorkizunean egongo diren beharrei aurre egiteko prest egoteko. Bidean dagoen Herri Antolamendurako Plan Orokorrak epe ertainean 8.000 biztanle inguruko Gorliz bat irudikatzen du, beraz herriko azpiegitura guztiak biztanleria horri zerbitzua emateko diseinatuak egon beharko dira. Beste alde batetik zerbitzuen emakidak diseinatzerakoan zehaztasunak gehiago zaindu beharko dira, herriaren irudia eta bere biztanleen asetzeta hobetu daitezkeen. Horrez gain elektrizitate eta erregai gastua optimizatzeko eta instalazioak gaur egungo legedira moldatzeko auditoretza energetiko baten beharra dago. Beste alde batetik, umeentzako jolas parke estali bat eta herriaren neurrirako Gazteleku bat gure lehentasunen artean kokatu behar ditugu.

### **Gorlizerako ikusten duzun erronkaren bat?**

Herriko landa paisaia berrizteko proiektu baten beharra dago, nekazaritza eta abeltzaintzara itzul daitezkeen lur sail asko daude, honekin utzikeria irudi hori ekidituko litzateke, herrian lan postuak sortuko ziren eta 0 KM janaria sortzea ahalbidetuko zen. Badakit konplexutasun handiko proiektu bat dela eta gauzatzeko denbora behar duela, baina paisaiaren hobekuntzak, lanaren sorkuntzak eta elikadura osasuntsuak pena merezi dutela uste dut.

Gorliz es un municipio con unos 5.800 habitantes, casi 4.800 viviendas, pocas empresas y una playa que atrae muchos visitantes. Esto implica que se genera mucha demanda de servicios, limpieza, jardinería, alumbrado, cultura, educación, etc. y para hacer frente a ello el Ayuntamiento cuenta con unos ingresos limitados ya que por desgracia casi no se recauda en lo referente al Impuesto de Actividades Económicas. Pero también hay que tener en cuenta la calidad de la ciudadanía, su capacidad de participación y la cantidad de asociaciones que existen. Éste es el gran valor de Gorliz. Se ha duplicado su número de habitantes en los últimos treinta años y con ello la demanda de servicios ha crecido mucho.

Hay que hacer un plan de mejora de los equipamientos municipales con el fin de adaptarlos a las necesidades actuales y venideras. El Plan General de Ordenación Urbana diseña una proyección de habitantes cercana a los 8.000, por lo que todas las infraestructuras tienen que ser diseñadas con ese horizonte poblacional. Por otro lado, se tiene que ser más ajustado a la hora de diseñar las concesiones de servicios, para que la imagen del pueblo y la satisfacción de sus habitantes sean mejores. Además, es necesaria una auditoría energética que minore el gasto en electricidad y combustible y adapte las instalaciones a las normativas vigentes. Por otra parte, acondicionar un espacio cubierto de

juegos infantiles y dotar al pueblo de un Gazteleku adecuado deben ser unas de nuestras prioridades.

Una forma de paliar las carencias de ingresos y mejorar la situación del pueblo puede ser el empezar un proyecto de renovación del paisaje rural del Pueblo, hay un gran número de terrenos que pueden volver a la actividad agropecuaria, de forma que se evitaría esa imagen de abandono y por otro lado se crearía empleo y se posibilitaría la obtención de alimentos Kilómetro 0. Sé que es un proyecto complejo y que necesita de tiempo para su realización, pero la mejora paisajística, la creación de empleo y la posibilidad de una alimentación sana merecen la pena.

## Gorlizek behar dituen proposamenak

### Ekipamenduak

**G**aur egun, orain dela 10 urte zeuden ekipamendu berberak ditugu, zaharkituak daudenak eta mantenimendu eskasa dutenak. Horregaitik, herriak kalitatezko ekipamenduen beharra duela erreparatu dugu. Alde horretatik, EH Bilduk lan egingo du hurrengo ekipamenduak lortzeko:

- Zenbait gauza bateratzen dituen eraikin bat:  
**Kultur Etxea**, herriak dituen premiei erantzuteko **Liburutegia**, eta hainbat ekimen kultural barneratu ditzakeen **Auditoriuma**.
- Gazteen beharrak asetu ditzazkeen **Gazteleku** bat eta gazteen beharrei erantzuteko **Gazteria Teknikaria**.
- Ume txikientzako **Ekimen Kulturalak**, **Ludoteka** eta gaur egun Gorlizek ez dituen **Zabu Estaliak**



#### Equipamientos

A día de hoy nos encontramos con los mismos equipamientos que teníamos hace 10 años, obsoletos y con escaso mantenimiento. Por ello, observamos la necesidad de dotar al pueblo de unos equipamientos de calidad. En este aspecto, desde EH Bildu vamos a trabajar por conseguir:

- Un edificio que integre: **Kultur Etxea**, una **Biblioteca** que se adecue a las necesidades actuales del pueblo, además de un **Auditorio** donde poder albergar múltiples eventos culturales.
- Un **Gazteleku** que cumpla con las necesidades de los jóvenes además de un **Técnico de Juventud** que dé respuesta a sus inquietudes.
- Para los más pequeños también proponemos **Actividades Culturales**, **Ludoteca**, y unos **Columpios Cubiertos** que hoy en día Gorliz no ofrece.

### Udal antolakuntza

- Gardentasuna eta parte-hartzea bermatzeko, Udal web gunea kudeatu: Arlo guztien datuak eta txostenak gaurkoztu eta arduradunak ipini.
- Parte-hartzea modu eroso eta sinplean bultzatu.
- Legez udal batzordeak irekiak izan behar dira
- Larritasun udal plana bultzatu.




#### Organización Municipal

Para garantizar la transparencia y la participación:

- Reforzar el mantenimiento de la web municipal, actualizando constantemente los datos e informes de cada área, y marcar qué persona o personas se encargarán de ello.
- Impulsar la participación de una manera cómoda y simple
- Las comisiones municipales serán abiertas, como lo permite la legislación actual.
- Impulsar un Plan de Emergencia Municipal.

## Gorlizek behar dituen proposamenak

### Mugikortasuna




- Bidegorri sare oso bat egitea herrian, mugikortasuna kotxe barik errazteko.
- TAOren oraingo kontratua amaitzean, azterketa sakon bat egin, herritaren partehartzearekin, hurrengo kontratuari begira.
- Garraio partzuergoarekin batera autobus linea bat sortzea edo orain dagoena luzatzea, Gorlizko biztanleak (eta inguruko herrietakoak) Urdulizko ospitalera hurbiltzeko.
- Bizkaiko batzar nagusietako EH Bilduko partaideei lagundu, euren Bizkaiko garraio publikoaren tarifa bakarra ezartzeko (bidai berdina, tarifa berdina eduki dezan)

#### Movilidad

- Completar una red de vías para bicicletas por todo el municipio, con la intención de facilitar la movilidad, sin tener que recurrir al coche
- Cuando se acabe la actual concesión de la OTA, llevar a cabo un diagnóstico contando con la participación ciudadana, de cara a la realización del próximo contrato.
- Gestionar ante el Consorcio de Transporte la creación de una línea de autobús, o la prolongación de la actual, que acerque a los habitantes de Gorliz, junto con los de los municipios colindantes, al Hospital de Urduliz.
- Apoyar a los Miembros de EH Bildu en las Juntas Generales en su proyecto de implantación de la tarifa única en el transporte público de Bizkaia (a igual trayecto igual coste).

### Etxebizitza



**G**aur eguneko joeran Gorlizen 2. etxebizitzaren eskaera jaisten egon arren oraindik honen parkea etxe hutsen kopuruarekin batera 1. etxebizitzaren kopuru bera da. Gure herriko gazteek eta urte osorako etxebizitza bilatzen dutenak, erosiz ala alokatuz, lortzea ia ezinezkoa dute. Herriak duen hazkunde naturala betetzeko etxebizitza publikoaren politikak egin behar ditu lehenengo etxebizitzak sustatu eta bultzatzeko.

- Lehenengo pausua etxebizitzari buruzko herri-diagnostiko serio bat egitea litzateke. Hiritarrek zer behar dute? Zer nahi dute? Erosi ala alokatu?
- Etxebizitza hutsen udal zentsua osatu behar da. Lan hori kontratatutako asesoria batek egingo luke. Behin eginda, etxe horietako jabeek dauden tresna publikoen bitartez udal-alokairu parke publiko bat osatuko genuke.
- Diru publikoz eraikiko diren etxeak, alokairuan eskainiko dira, diru publikoa pribatizatzeari utziko zaio.
- Alokairua diru sarreren arabera ezarriko da, ez du gaindituko hauen %30 eta alokairu sozialaren kasuan %15etik azpikoa izango da, eta behar gehien dutenek aukera gehiago izan dezaten baremazio bidez banatuko dira eta diru sarrerak izango dira lehentasunezko irizpidea.
- Etxebizitza turistikoek buruz ordenantza bat sortu. Ugalketa proportziotik at egon ez dadin.

## Euskara

**E**uskararen ezagutza Gorkizen asko handitu da azken urteetan, Gorkizko Ikastetxearen esker batez ere. Ordua ailegatu zaigu dugun horri etekina haundiagoa ateratzeko gure herrian euskara biziagoa izan dadin. Udal aurrekontu duten herriko komunikabide, kirol, kultur eta sozial ekimen guztietan euskara ziurtatuz, batez ere, haur eta gazteentzako egingo den eskaintza euskaraz izatea bermatu behar da.

Udal euskara zerbitzua mankomunitateak kudeatzen du enpresa baten bitartez. Kontraturiko teknikarien lan-baldintzak direla eta, azken lau urtetan Gorkiz-Plentzia-Lemoizentzako zazpi pertsona pasatu egin dira lanpostu horretatik. Honek, zerbitzutik garatzen diren programen jarraipena era batez zailtzen du.

Gorkizek arlo honetan dituen beharrak asetzeko, kudeaketa zuzenagoa eta jarraitua behar du. Horretarako teknikariaren kontratazioa mankomunitatetik ateratzea proposatuko dugu, Plentziarekin batera teknikari bat izateko.

### 11 **PLENTZIA ETA GORLIZKO** **EUSKARA AGENDA BATERATUA** APIRILAK



**Apirilak 06**  
**"Bazen behin" familientzako ipuinak zikloa**  
Txanpon baten truke / Amelie  
18:00etan | Goñi portalean



**Apirilak 07**  
**Formazio-tailerra**  
Trakamatraka musika tailerra  
17:30-19:30 | Danontzat Gaztebxea



**Apirilak 10**  
**Korrika Gorkizetik**  
Burrumba elektrobaranga  
17:30etatik aurrera | kalez kaleko emanaldia



**Apirilak 10**  
**Korrika Plentziatik**  
Matraka elektrobaranga  
17:30etatik aurrera | kalez kaleko emanaldia



**Apirilak 12**  
**Kontzertu-Kantaldia**  
Mikel Urdangarin  
20:30ean | Danontzat Gaztebxea



**Apirilak 24**  
**OPORRETAN TXANGORA programa**  
ABENTURA eta JOIASAK - Bizkaia abentura park | 1.- 2. L.H.  
ONDARE HISTORIKOA eta LANBIDEAK - Tolosa | 3.- 4. L.H.  
NATURA eta BIZITZA - Valderejo parke naturala | 5.- 6. L.H.

## Turismo

**G**orkizen, turismoa beti egon da eremu publikoen okupazio jendetsuari lotuta, ziurrenik, helburu zehatzak dituen politika turistikoa aurrera eramateko ezjakintasunagaitik, enplegua eta aberastasun ekonomikoa sortu dezakeen sektore baten garapena eragotziz. Horregaitik, EH Bilduk Turismo Ekologiko baten garapenean apostu egin nahi du, motore ekonomikoa bat eta industria berdeentzako erakargarria izan daitekeena, ingurugiroa errespetatuz eta batez ere, Gorkizko altxorra den ingurugiroa babestu dezana.



### Turismo

El turismo en Gorkiz siempre ha estado ligado a la ocupación masiva de los espacios públicos, seguramente, debido a un desconocimiento de cómo llevar a cabo una política turística con objetivos definidos, impidiendo así el desarrollo de un sector generador de riqueza y empleo, quedándose en muchas ocasiones como un mero organizador de eventos. Es por eso que desde EH Bildu queremos apostar por el desarrollo de una política de Turismo Ecológico que pueda ser motor económico y polo de atracción a industrias verdes, respetuosas con el medio ambiente y sobre todo, de protección de uno de los tesoros de Gorkiz, su entorno natural.



# Zurekin GORLIZ gara

INICIATIVA | SOLUCIONES



**Aurrean:** Izaskun Ibarra • Gabriel de la Maza • Amagoia Arrieta • Jose Antonio Martinez • Iratxe Irusta - Aritz Rementería • Norberto Arrieta

**Atzean:** Iñaki Lagos • Jose Ijona • Iñigo Zarandona • Goizeder Calvo • Edurne Garaizar • Anne Peña • Alaitz Ruiz de Agirre • Maider Vicente

## Hirigintza

2015-19 legislaturan HAPOrako aho batez lortutako irizpideak mantendu eta idazlari ekipoak egindako dokumentua bultzatu eta berehala erakusketa publikoan jarri herritarrek alegazio eta aportazioa egin dezaten.

Lortutako irizpide nagusiak:

1. Aurreko Arau subsidiarioetako hiri-lurzoru finkatueta zein ez finkatueta geratzen diren lurak baino gehiago ez erabiltzea. Hauen dentsitateak zein etxe motak (publikoa zein pribatuak) oraingo legeari egokituz.
2. Hirigintzako kargak bete egin ez diren lurzoru urbanizagarrian plan partziala txikiagotzea, bere hazkundeagatik, herriak beharko duen hezkuntza ekipamendu berri batentzako lurak lortu, beharko den lur minimoa erabiliz.
3. Gorlizko balore nagusia bere ingurunea da, HAPOk, ondarea hau babestu behar du, dauden lurzoru urbanizaezinak mantenduz haien erabilerak zehaztuz. Ingurune-errekuperazioa eta hauen etorkizuneko kontserbazioa ziurtatuz.
4. Gorlizek duen Kultur eraikuntzak ekipamendu berri batean batzea honi behar berriak eta egokiak erantsiz: Neurrizko liburutegia, Ikasteko gelak, Ikastaro-gelak, entsegu-gelak, auditorioa,...

Gorlizek izan duen eta izan dezaken hazkundea dela, herria egiteko behar dituen ekipamenduen diagnostiko bat egin behar du: Hezkuntza, osasuna, kultura, kirola, turismo, gazteak, nagusiak, etxebizitza publikoak... Lehenetasunak ordenatzeko eta hauek nola kudeatu: kudeaketa publikoa, pribatua ala komunitarioa  
Ekipamenduek pertsonak erdigunean jarri, euskara, generoa eta adin guztiak kontuan hartuz, hau da inklusiboak izanik.



## «Bizkaiak baliabideak ditu. Erabil ditzagun herrialdea hobetzeko»

### Aprovechemos los recursos para mejorar Bizkaia

Bizkaia es un buen lugar para vivir. A pesar de ello los recursos y el potencial del territorio están siendo desaprovechados por unos mandatarios que apuestan por un solo sector, dejando de lado las posibilidades que ofrece el territorio.

**Si queremos acabar con las carencias existentes, debemos aprovechar todas las posibilidades que ofrece Bizkaia.**

**¿Por qué no vivir en una Bizkaia mejor?**



**Bea Ilardia Olangua**  
Bizkaiako foru hauteskundeetako zerrendaburua  
Candidata a Diputada General de Bizkaia

**B**izkaia leku on bat da bizitzeko. Potentziala eta baliabideak dituen herrialdea da. Hala ere, baliabide horiek ez dira behar bezala aprobetxatzen.

Ezin ditugu, orain artean gertatu den bezala, indar guztiak sektore bakarrean jarri.

Bizkaiak dituen gabeziak konpondu nahi baditugu herrialdeak daukan potentzial guztia helburu horren mesedetan jarri behar dugu.

**Bizkaia hobeago bat posible dela argi daukagu**

**Zergatik ez bizi herrialde hobe batean?**

## «Europako Parlamentua, lanerako beste gune bat EH Bildurentzat»

**E**uropako Parlamentua lanerako beste gune bat da EH Bildurentzat: Euskal Herriaren aitortza internacionalaren alde lana egiteko; konponbidearen eta preso politikoaren eskubideen alde egungo aliantzak sendotzeko eta berriak sortzeko; ezkerreko kideekin batera, EH Bilduren lan, ikuspegi eta borroka feminista indartzeko; eta gure herritarren aldarrikapenak eta beharrak Europara eramateko, zubi lana eginez, betiere, esparru guztietan herritar guztien eguneroko bizitza hobetzeko alternatibak eta eredurik aurrerakoienak defendatuz Europako Parlamentuan.

### Europa, otro espacio de trabajo para EH Bildu

El Parlamento Europeo es otro espacio de trabajo para EH Bildu: para trabajar por el reconocimiento internacional de Euskal Herria; para reforzar el trabajo a favor de la resolución del conflicto y los derechos de todas y todos los presos políticos, y

crear nuevas alianzas; para avanzar desde una perspectiva feminista a favor de la igualdad entre hombres y mujeres junto con las fuerzas progresistas europeas; para mejorar el día a día de las ciudadanas y los ciudadanos de Euskal Herria.



Orain Errepublikak  
Ara Républiques  
Agora Repúblicas  
Ahora Repúblicas



UDAL HAUTESKUNDEAK  
Elecciones municipales



FORU HAUTESKUNDEAK  
Elecciones forales



EUROPEAR HAUTESKUNDEAK  
Elecciones europeas

# ehbildu